NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

5794

AGINDUA, 2008ko irailaren 29koa, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuarena, ItsasMendikoi Pasaian eta Lanbide Heziketako Ondarroako Antiguako Ama Itsasketa eta Arrantza ikastetxean itsasoari eta arrantzari buruzko ikasketak egiteko beken deialdia egitekoa.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak ondoko helburua du, besteak beste: arrantzarekin zerikusia duten sektoreetako langileak prestatzeko politika egokia egitea. Hori dela-eta, eta arrantza sektorearen premia eta behar sozio-ekonomikoei erantzun nahian, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak uste du beharrezkoa dela, aurreko urteetan bezala, beketarako deialdia egitea itsasoko langileentzat eta, oro har, merkatuko premietara egokitutako prestakuntza (Europako egungo eskakizunarekin bat etorri eta arrantza-sektorearentzat onuragarriagoa dena) jaso nahi duten pertsona guztientzat.

Beketarako deialdi honen xedea helburu hori lortzea da, eta deialdi honen bidez aurreko ekitaldietan hasitako politikari eutsi nahi zaio. Horren harian, 2007ko ekitaldian Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2007ko urriaren 16ko Agindua argitaratu zen, ItsasMendikoi Pasaian eta Ondarroako Antiguako Ama ikastetxean itsasoari eta arrantzari buruzko ikasketak egiteko beketarako deialdia egin zuena.

Euskal Autonomia Estatutuko 10.10 eta 16. artikuluen arabera Euskal Autonomia Erkidego honi emandako ahalmenez baliatuz, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren egitura organikoa eta egitekoena finkatzen duen 290/2005 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, eta Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko Sailburuordetzak proposatuta, ondokoa

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Beketarako deialdia egitea, 2008-2009 ikasturtean itsasoari eta arrantzari buruzko ikasketak egiteko honako ikastetxeotan: ItsasMendikoi Pasaian eta Ondarroako Antiguako Ama Ikastetxean.

Bigarrena.– Bekak honako gai hauetarako izan daitezke:

– Ohiko bizilekutik kanpo bizitzeak eragindako gastuak.

– Ikastetxerako joan-etorriek eragindako gastuak.

– Mantenu-gastuak.

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

5794

ORDEN de 29 de septiembre de 2008, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se convocan becas para cursar estudios de enseñanzas marítimo-pesqueras en ItsasMendikoi Pasaia y en la Escuela de Formación Profesional Náutico Pesquera N.ª S.ª de la Antigua de Ondarroa.

El Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación tiene entre sus objetivos, el mantenimiento de una adecuada política de formación de los trabajadores y trabajadoras de los diferentes sectores relacionados con la pesca. Para ello, y procurando atender las necesidades y peculiaridades socioeconómicas del sector pesquero, el Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación considera necesario, al igual que en años anteriores, convocar la concesión de becas para trabajadores y trabajadoras de la mar y, en general, para todas aquellas personas interesadas en adquirir una preparación adecuada a las necesidades del mercado, acorde con la actual demanda europea, que redunde en un mayor beneficio del mencionado sector pesquero.

A la consecución de dicho objetivo se dirige la presente convocatoria de becas, que da continuidad a la política ya iniciada en precedentes ejercicios. A este respecto, en el ejercicio 2007 se publicó la Orden de 16 de octubre de 2007, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se convocaban becas para cursar estudios de enseñanzas marítimo-pesqueras en ItsasMendikoi Pasaia y en la Escuela de Formación Profesional Náutico Pesquera N.ª S.ª de la Antigua de Ondarroa.

En virtud de la competencia atribuida a esta Comunidad Autónoma del País Vasco de acuerdo con los artículos 10.10 y 16 del Estatuto de Autonomía, y de conformidad con lo prescrito en el Decreto 290/2005, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, y a propuesta de la Viceconsejería de Desarrollo Agrario y Pesquero,

RESUELVO:

Primero.– Convocar becas para cursar enseñanzas marítimo-pesqueras en ItsasMendikoi Pasaia y en la Escuela N.ª S.ª de la Antigua de Ondarroa, para el curso académico 2008-2009.

Segundo.– Las becas podrán destinarse a los siguientes conceptos:

– Gastos de residencia fuera del domicilio habitual.

– Gastos de desplazamiento al Centro.

– Gastos de manutención.

– Ikasketa-materialetarako gastuak.

Hirugarrena.– Bekak emateko, beka eskatu dutenek ateratako puntuazioari begiratuko zaio, eta horretarako izendaturiko Balioespen Batzordeak ezarriko du puntuazioa. Beka eskatu duen bakoitzari puntuak emateko, bestetik, jarraian adieraziko diren irizpideak hartuko dira oinarritzat:

– Egin beharreko ikasketen maila:

* A maila.– Arrantzako kapitaina. Goi-mailako prestakuntza-zikloak.– 8 puntu.

* B maila.– Erdi-mailako prestakuntza-zikloak.– 6 puntu.

* C maila.– Kostaldeko patroi balioanitza.– 2 puntu.

– Ohiko bizilekuko herritik ikastetxera dagoen herrirako distantzia:

* 1. taldea.– 50 kilometrotik gora: 16 puntu.

* 2. taldea.– 30 kilometrotik gora, 50era arte: 8 puntu.

* 3. taldea.– 10 kilometrotik gora, 30era arte: 4 puntu.

* 4. taldea.– 5 kilometrotik 10era arte: 2 puntu.

– Eskatzailearen inguruabar pertsonal eta familiarrak:

* Ezkontideagatik (ezkontideak ez badu lanik egiten): 2 puntu.

* Seme edo alaba bakoitzeko: 2 puntu.

* Neba-arreba bakoitzeko (ezkongabe adingabeak badira edo lanik gabe badaude, eta ezkontide bakarrak lan egiten duen famili unitate batean bizi badira): puntu 1.

– Aurreko urtean eskatzaileak edo bere familiak lortutako diru-sarrera gordinak, iturria edozein dela (eskatzailea, ekonomiari dagokionez, familiaren mendean badago):

* 0 eurotik 6.000 eurorainoko sarrerak.– 8 puntu.

* 6.001 eurotik 12.000 eurorainoko sarrerak.– 4 puntu.

* 12.001 eurotik 18.000 eurorainoko sarrerak.– 2 puntu.

Laugarrena.– Balioespen Batzordeak izango du beka eskatu dutenei puntuazioa emateko ardura. Puntuazio hori, dena den, aurreko artikuluan azaldu diren irizpideen araberako balorazioaren ondorio izango da.

Batzordeko kideak ondoko hauek izango dira:

Lehendakaria: ItsasMendikoi Pasaiako zuzendaria.

Idazkaria: ItsasMendikoi Pasaiako Irakasle Koordinatzailea.

Batzordekidea: ItsasMendikoi Pasaiako Kalitateburua.

– Gastos de material para los estudios.

Tercero.– Las becas serán adjudicadas de acuerdo con la puntuación obtenida por las personas candidatas, que será establecida por una Comisión de Valoración nombrada a tal efecto. La asignación de puntos a cada persona se hará de acuerdo con los siguientes criterios:

– Nivel de los estudios a realizar:

* Nivel A.– Capitán de Pesca. Ciclos formativos de grado superior: 8 puntos.

* Nivel B.– Ciclos formativos de grado medio: 6 puntos.

* Nivel C.– Patrón Costero Polivalente: 2 puntos.

– Distancia entre la localidad de residencia habitual y la localidad en la que está ubicada el centro de estudios:

* Grupo 1.– De más de 50 kilómetros: 16 puntos.

* Grupo 2.– De más de 30 a 50 kilómetros: 8 puntos.

* Grupo 3.– De más de 10 a 30 kilómetros: 4 puntos.

* Grupo 4.– De 5 a 10 kilómetros: 2 puntos.

– Circunstancias personales y familiares del solicitante:

* Por consorte (si no trabaja el cónyuge): 2 puntos.

* Por hijo o hija: 2 puntos.

* Por hermano o hermana (caso de hermanos y hermanas solteros menores de edad o en paro pertenecientes a unidades familiares en las que sólo trabaje un cónyuge): 1 punto.

– Ingresos brutos, cualquiera que sea su procedencia, obtenidos durante el año precedente por la persona solicitante o su familia, en caso de dependencia económica de ella.

* Ingresos entre 0 y 6.000 euros: 8 puntos.

* Ingresos entre 6.001 y 12.000 euros: 4 puntos.

* Ingresos entre 12.001 y 18.000 euros: 2 puntos.

Cuarto.– La Comisión de Valoración será la encargada de asignar la puntuación a las personas candidatas, la cual se hará en virtud de una valoración de acuerdo con los criterios expuestos en el punto anterior.

Dicha Comisión estará compuesta por:

Presidente: el Director de ItsasMendikoi Pasaia.

Secretario: el Coordinador Docente de ItsasMendikoi Pasaia.

Vocal: la Responsable de Calidad de ItsasMendikoi Pasaia.

Aurrekoez gain, ikasketak Ondarroako Antiguako Ama Ikastetxean egin nahi dituztenek aurkeztutako eskariak balioesteko, eskola hartako idazkaria ere izango da Balioespen Batzordeko kide.

Bosgarrena.– Aurkezturiko eskabideak aztertutakoan, baldintzak betetzen dituzten eskatzaileak aukeratuko ditu batzordeak, eta dagokien puntuazioa emango die; ondoren, ebazpen-proposamena igorriko dio Landa eta Itsasertzearen Garapeneko zuzendariari. Arrantza eta Akuikultura zuzendariak, jarraian, ebazpena emango du, eta agindu honetako deialdiko bekak esleituko ditu. Ebazpen horretan, onartutako hautagaien zerrenda jasoko da, eta garbi adieraziko da hautagai bakoitzaren puntuazioa eta esleitutako bekaren zenbatekoa. Hori guztia interesa duten pertsonei jakinarazteko, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da ebazpena, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik hasi eta gehienez ere hiru hilabeteko epean. Epe hori igaroz gero, eskabideak ezetsitzat jo daitezke, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluak dioenaren ondorioetarako. Lege berak, hala ere, beren beregiko ebazpena eman beharra ezarri dio Administrazioari, jakina. Ebazpenak, beraz, ez du administrazio-bidea amaituko, eta haren aurka gora jotzeko errekurtsoa jar dakioke Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko sailburuordeari hilabeteko epearen barruan.

Seigarrena.– 1.– 2008-2009 ikasturterako deitutako bekak finantzatzeko, 153.464 euro izango dira, gehienez ere, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan horretarako ezarri den kredituaren arabera.

2.– Puntu honetarako esleitutako guztizko zenbatekoa aldatu ahal izango da, eskatutako laguntza guztien kopurua kontuan hartuta, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saileko laguntzetarako beste programak egitearen ondorioz agortu gabe dauden aurrekontu-baliabideen arabera, betiere laguntzak ebatzi aurretik. Hala gertatuz gero, Nekazaritza eta Arrantza Garapeneko sailburuordearen ebazpen baten bidez jakinaraziko da.

3.– Agindu honetako baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guzti-guztiek bekarako eskubidea izango dute, eta beken zenbatekoa 150,25 eurokoa izango da gutxienez, eta 2.404,05 eurokoa gehienez; nolanahi ere, beka bakoitzaren zenbatekoa eta bekadunari emandako puntuak zuzenki proportzionalak izango dira. Puntu bakoitzaren balioa honela aterako da: bekentzako jarritako guztizko kopurua -aurreko zenbakian esandakoazati bekadun guztiek agindu honen 3. artikuluan ezarritako irizpideen arabera ateratako puntu guztiak.

Zazpigarrena.– Bekaren iraupena ikasturte batek dirauen bestekoa izango da.

Zortzigarrena.– Beka eskatzeko inprimakia ikastetxeetan eskuratuko da, eta beka eskatu duenak ikasten

Además, para la valoración de las solicitudes presentadas por aquellas personas que quieran cursar estudios en la Escuela N.ª S.ª de la Antigua de Ondarroa formará parte de la Comisión de Valoración el Secretario de dicha Escuela.

Quinto.– Analizadas las solicitudes presentadas, la Comisión de Valoración seleccionará a las personas candidatas que cumplan los requisitos exigidos y les asignará la puntuación que corresponda, elevando propuesta de resolución al Director de Desarrollo Rural y Litoral que resolverá asignando las becas convocadas por la presente Orden. Dicha resolución contendrá la relación de personas candidatas admitidas, con expresa indicación de su puntuación y cuantía de la beca asignada. La notificación a las personas interesadas se llevará a efecto mediante la publicación de dicha resolución en el Boletín Oficial del País Vasco en el plazo máximo de tres meses a contar desde el día de finalización del plazo de presentación de solicitudes. Transcurrido dicho plazo, las solicitudes se podrán entender desestimadas a los efectos previstos en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, sin perjuicio de la obligación que la citada Ley impone a la Administración de resolver expresamente. Esta resolución no pondrá fin a la vía administrativa y podrá ser objeto de recurso de alzada en el plazo de un mes ante el Viceconsejero de Desarrollo Agrario y Pesquero.

Sexto.– 1.– Para la financiación de las becas convocadas para el curso 2008-2009, se destinará un importe máximo de 153.464 euros, según el correspondiente crédito presupuestario establecido al respecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– El importe global consignado en este punto podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, y con carácter previo a la resolución de las mismas. De dicha circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Desarrollo Agrario y Pesquero.

3.– Todas las personas candidatas que cumplan los requisitos de la presente Orden tendrán derecho a beca, quedando la cuantía de las becas establecida en un mínimo de 150,25 euros y un máximo de 2.404,05 euros y será directamente proporcional al número de puntos asignados a cada persona becaria. El valor del punto se obtendrá dividiendo el importe asignado a las becas, según se establece en el punto anterior, por el número total de puntos obtenidos por todas las personas becarias, de acuerdo con los criterios establecidos en el punto 3 de la presente Orden.

Séptimo.– La duración de la beca será de un curso académico.

Octavo.– El impreso de solicitud de beca se recogerá en los centros de estudios, y deberá presentarse en la se-

diharduen ikastetxeko idazkaritzan aurkeztu behar du. Eskabideari ondoko hauek erantsiko zaizkio:

a) Pertsona eskatzailearen nortasun-agiriaren fotokopia.

b) Eskatzaileak administrazio-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duela egiaztatzen duen ziurtagiria.

c) Familia-unitateko kide guztien Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenaren fotokopia. Familiako kideren batek aitorpen hori egiten ez badu, halakorik egin behar ez duelako, Foru Ogasunaren ziurtagiria aurkeztu behar da, aitorpenetik salbuetsita dagoela frogatzeko; jasotako bestelako kopuruak, alegia, lanaren ondoriozkoak, langabezi sorospena, pentsioa edo antzekoak nominen edo ordainagirien bidez frogatu behar dira.

d) Familia-bizikidetasunaren ziurtagiria.

e) Hirugarrenen alta inprimakia.

Bederatzigarrena.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Hamargarrena.– Emandako laguntzaren ordainketa honela egingo da: beka guztiak, zenbatekoa edozein dela ere, bi zatitan ordainduko dira. Lehenengo zatia zenbateko osoaren % 35ekoa izango da, eta ikasturtearen lehenengo hiruhilekoa bukatzerakoan ordainduko da; bigarren zatia, berriz, zenbateko osoaren % 65ekoa izango da, eta ikasturtea bukatzerakoan ordainduko da; betiere ikasleak ikasturtea ongi aprobetxatu badu.

Hamaikagarrena.– Bekarako eskabidea aurkeztean, beka-deialdia egin duen agindu honetan xedatutakoa onartzeko konpromiso formala hartuko du eskatzaileak. Bekadunak arau hauek hausten baditu, jasotako diru-kopuru osoa eta aplikatu beharreko legezko interesak itzuli behar izango ditu.

Bekadunak bidezko arrazoiren batengatik uko egiten badio bekari, beka dela-eta kobratutako eskubide ekonomikoen zati bat itzuli beharko da. Itzuli behar den kopurua kalkulatzeko, igaro gabe dagoen beka-aldia eta bekaren zenbatekoa hartuko dira kontuan.

Hamabigarrena.– 1.– Ikasleak bekarako eskubidea galduko du baldin eta asistentziari dagokionez huts egiten badu. Asistentzia honela neurtuko da:

– Justifikatu gabeko hutsak ikaslearen ikasketa-ordutegiaren % 15etik gorakoak badira, ikasleari beka kenduko zaio, eta jaso dituen zenbatekoak itzuli beharko ditu.

– Justifikaturiko hutsen kasuan, aurreko idatz-zatian deskribaturiko ondorio berberak izango dira huts-kopurua % 30etik gorakoa bada. Edonola ere, eskolara itzuli bezain laster justifikatu behar dira hutsak.

cretaría del centro en el que cursa sus estudios la persona solicitante, adjuntando la siguiente documentación:

a) Fotocopia del Documento Nacional de Identidad de la persona solicitante.

b) Certificado de vecindad administrativa de la persona solicitante en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

c) Fotocopia de la declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas de todos los miembros de la unidad familiar. En caso de que algún miembro de la unidad familiar no presente la citada declaración por no estar obligado a presentarla, deberá acreditarlo mediante un certificado de la Hacienda Foral y acreditará también, mediante nóminas o recibos las cantidades percibidas por trabajo, subsidio de desempleo, pensión o similar.

d) Certificado de convivencia familiar.

e) Impreso de Alta de Tercero.

Noveno.– El plazo de presentación de solicitudes es de un mes a partir del día siguiente al de la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Décimo.– El pago de la ayuda concedida se efectuará de la siguiente forma, todas las becas independientemente del importe que tengan, serán abonadas en dos pagos fraccionados, el primero el 35% del importe total a la conclusión del primer trimestre del curso académico y el segundo el 65% del importe total, a la finalización del curso, condicionado siempre al aprovechamiento de éste por parte del alumno.

Undécimo.– La presentación de solicitud de beca supone el compromiso formal de aceptación de lo dispuesto en la presente Orden de convocatoria de becas. Si la persona becaria conculcase esta regulación vendrá obligada a reintegrar la cuantía concedida y percibida más los intereses legales que resultaran de aplicación.

La renuncia a la beca por causa debidamente justificada, dará lugar a la devolución de parte de los derechos económicos cobrados por la misma. La cantidad a devolver se calculará teniendo en cuenta el período de beca que queda pendiente de desarrollar y la cuantía de la beca.

Decimosegundo.– 1.– El alumno o alumna perderá el derecho a la beca en el caso de falta de asistencia al curso. Esta falta de asistencia será medida de la siguiente manera:

– En el caso de que las faltas de asistencia sin justificar supongan más del 15% del Horario lectivo del alumno o alumna, se producirá la pérdida de la beca, debiendo reintegrarse las cantidades recibidas en su caso.

– En el caso de faltas justificadas, se producirán los mismos efectos descritos en el apartado anterior cuando el número de faltas sea superior al 30%. En todo caso, la justificación de las faltas deberá presentarse en el mismo momento de reincorporación a las clases.

2.– Ikastaroa errepikatzen duten ikasleek beka arruntaren % 50erainoko kopurua jaso ahal izango dute, aurreko urteko aprobetxamendu txarra ikastaroaz kanpoko arrazoi larriengatik izan dela behar bezala frogatuz gero. Arrazoi horiek agindu honen 4. artikuluan ezarritako batzordeak balioetsiko ditu.

Hamahirugarrena.– Ikasketa-beka hau bateraezina da funts publikoen kontura helburu bererako ematen den beste edozein laguntzarekin; beraz, onuradunak, agindu honen bidez egiten den deialdiko bekarik jasoz gero, uko egin behar die gainontzeko laguntzei.

Hamalaugarrena.– Bekaren onuradunak agindu honek ezarritako betebehar guztiak bete behar ditu. Hala egin ez duela jakiten bada, edo onuradunak aurkezturiko agirietan agertzen diren datuak zehatzak eta egiazkoak ez badira, aprobetxamendua eskasa bada eta/edo eskolara huts egiten badu, eta bekaren helburua edo laguntza emateko eskatzen diren gainontzeko baldintzetarik beste edozein betetzen ez badu (ikastetxeetako zuzendaritzek ziurtatu behar dituzte inguruabarrok), beka galduko du, eta artean jasotako ordainak eta aplikatzekoak diren legezko interesak itzuli beharko dizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari bi hilabeteko epearen barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan aurreikusitako prozeduraren arabera, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren arabera.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honen aurka, administrazio-bidea amaitu baitu, interesaturik daudenek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuari, hilabeteko epearen barruan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, besterik gabe, administrazioarekiko auzierrekurtsoa jarri ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epearen barruan, agindua aldizkari ofizial berean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko irailaren 29a.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburua,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

2.– Aquellos alumnos o alumnas que repitan curso podrán, en su caso, obtener hasta un 50% de la beca ordinaria si el mal aprovechamiento del curso anterior está debidamente justificado por motivos extra-académicos graves, oportunamente valorados por la Comisión establecida en el punto 4 de la presente Orden.

Decimotercero.– El disfrute de esta beca de estudio es incompatible con cualquier otra ayuda con cargo a los fondos públicos para este mismo fin, por lo que la persona solicitante, en caso de que le fuera adjudicada una de las becas que en virtud de esta Orden se convocan, deberá renunciar a una de las ayudas.

Decimocuarto.– La constatación de cualquier supuesto de incumplimiento por parte de la persona beneficiaria de la beca de alguno de los requisitos exigidos en la presente Orden, así como la inexactitud o falsedad de los datos consignados en la documentación presentada por la persona beneficiaria, falta de aprovechamiento y/o ausencias a clase de ésta o cualquier otro incumplimiento tanto del destino como de las condiciones exigidas para el otorgamiento de la ayuda, aspectos, en su caso, certificados por las Direcciones de los centros de enseñanza, dará lugar, de conformidad y en los términos establecidos en el Decreto legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, a la pérdida de la beca y a la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco en el plazo máximo de dos meses, la cuantía percibida más los intereses legales que procedan.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán las personas interesadas interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal superior de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

Segunda.– La presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de septiembre de 2008.

El Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

I. ERANSKINA

2008-2009 IKASTURTEAN IKASKETAK EGITEKO LAGUNTZA-ESKABIDEA

ITSASMENDIKOI PASAIA / ONDARROAKO ANTIGUAKO AMA IKASTETXEA

Eskatzailearen izen-abizenak: .....
Eskatzailearen adina: .....
Zein ikasketatarako egin nahi duzu matrikula? .....
Ohiko helbidea: ..... kalea, ... zk. .....
herria: ..... Ohiko helbideko telefonoa: .....
Ikaslearen helbidea, ikasturtean zehar:
..... kalea, ... zk. ..... herria: ..... Ikasturtean zehar erabiliko den bizilekuko telefonoa: .....

Famili egoera (adierazi X batez aukera zuzena zein den)

☐ Ezkondua	☐ Ezkongabea	☐ Banandua	☐ Alarguna	☐ Seme-alaba kopurua

Famili unitateko kideak, eskatzailea barne:

Izen-abizenak	Ahaidetasuna	Adina	Lan-jarduera / zein ikasketa egiten ari den	Hileko sarrerak

Aurreko ikasturtean egindako ikasketak: .....

Famili unitateak aurreko urtean jasotako sarrerak, guztira: .....

ZINPEKO AITORPENA: enpresak edo erakundea eskatzaileak ez duela diru-laguntza publikoak eskuratzea eragozten dituen zehapen administratiborik edo penalik jaso, eta ez daukala horretarako legezko inolako debekurik, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen amaierako seigarren xedapenean zehaztutakoarekin bat etorriz.

Pasaian / Ondarroan, 2008ko .....ren ...(e)an.

Eskatzailearen izenpea,

Iz.: ..... jn. / and.
NAN:.....

Datu Pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak jakinarazten dizu inprimaki honen bidez eskuratutako zure datu pertsonalak datuak tratatzeko fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula. Hala nahi izanez gero, datuok eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta datuoi aurka egiteko eskubideez balia zaitezke, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari idatzi bat bidaliz, hura baita tratamenduaren arduraduna (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

ANEXO I

SOLICITUD DE AYUDA PARA ESTUDIOS. CURSO 2008-2009

ITSASMENDIKOI PASAIA / ESCUELA N.ª S.ª DE LA ANTIGUA DE ONDARROA

Nombre y apellidos del solicitante: .....
Edad del solicitante: .....
Estudios para los que se matricula: .....
Domicilio habitual: C/ ..... n.º ..... Localidad .....
Teléfono del domicilio habitual: .....
Domicilio durante el curso:
C/ ..... n.º ..... Localidad .....
Teléfono del domicilio durante el curso: .....

Condición familiar (márquese con una X la opción correcta)

☐ *Casado*	☐ *Soltero*	☐ *Separado*	☐ *Viudo*	☐ *Número de hijos*

Miembros de la unidad familiar, incluyendo al solicitante:

Nombre y apellidos	*Parentesco*	*Edad*	*Actividad laboral / estudios que cursa*	*Ingresos mensuales*

Estudios realizados durante el curso anterior: .....

Ingresos totales de la unidad familiar en el año anterior: .....

DECLARACIÓN JURADA: que no se encuentra sancionada penal ni administrativamente con la perdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni se halla incursa en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final Sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Pasaia (Gipuzkoa)/ Ondarroa (Bizkaia), a ... de ..... de 2008.

Firma del solicitante,

Fdo.: D./D.ª.....
DNI:.....

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, el Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este impreso, van a ser incorporados para su tratamiento en un fichero automatizado. Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, dirigiendo un escrito a la Dirección de Servicios Generales del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación del Gobierno Vasco, como responsable del tratamiento, y con domicilio en c/ Donostia-San Sebastián, 1, en Vitoria-Gasteiz.